

Ebazpena: R163/2022

Espedientea: 11/2013

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) Nafarroako Zerga Ogasunarekiko (aurrerantzean NZO) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da 09-2012 BEZ-taldeari –PSL da nagusia– 2009. eta 2012. urteen artean zegokion tributazio-proporzioa zehaztea. Gatazka hori 11/2013 espediente-zenbakiarekin izapidetu da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1.- PSL nagusi den merkataritza-taldeak galdaketa-piezak fabrikatzen eta saltzen ditu.

Fabrikaziorako, galdaketan aritzen diren mendeko bi sozietate ditu. Horietako batek Gipuzkoan produzitzen du eta besteak Araban, eta 2012az geroztik, zatiketa partzial baten ondorioz, mekanizazioan (galdaketa-piezei, behar izanez gero, ematen zaien tratamendua da hori) aritzen diren mendeko beste bi sozietate ditu.

Merkaturatzeko, mendeko bat dauka: WESL (aurrerantzean WESL); eta horrek galdaketa-piezak saltzen ditu, Araban edo Gipuzkoan mekanizatuak izan ondoren, edo, hala badagokio, metalizatuak izan ondoren (hori kanpoko prozesu bat izaten da, egin behar izatekotan Nafarroan egiten dena).

Denek Gipuzkoan daukate zerga-egoitza.

2.- 09-0006 BEZ-taldea PSLk eta bere mendekoek osatzen dute eta, Ekonomia Ituneko 29. zazpi artikuluan ezarritakoaren arabera, GFAREN ikuskapen-eskumenekoa da. Baina, 2012az geroztik, Araban produzitzen duen galdategia talde horretatik kanpo dago, 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditzen duelako eta bere jardun osoa Araban gauzatzen duelako.

3.- 09-0006 taldeak 2009tik 2012ko maiatzerako autolikidazioak aurkeztu zituen, eta eragiketa-bolumenaren % 100 Gipuzkoan egin zuela aitortu zuen.

4.- GFAk aurretiazko adostasun-akta bat hasi zuen, 2012000767 zenbakia duena eta, bertan, aldatu egin zuen WESLren eragiketa-bolumenaren proportzioa, aldundiaren iritziz Nafarroan egiten delako metalizazio-prozesua daramaten piezen salmenta, han hasten baita piezak bezeroari iritsi arteko garraioa.

Akta hori akta bakar gisa izapidetu zen. Bertan, GFAk bere gain hartu zuen ordainarazteko eskumena duten administrazio guztiei dagokien itzulketa eta, horrek eragin zuen NZOK bere tributazio-proportzioari zegokion zenbatekoa aldundiari transferitu behar izatea.

5.- Aktaren ondorioz, eragiketa-bolumenaren proportzioaren arabera zegozkion 2012ko uztailetik aurrerako aitorpenak NZOri aurkezten hasi zen PSL.

6.- 2012ko azaroaren 12an, NZOk hainbat agiri eskatu zizkion zergapekoari, WESLk Nafarroan eragiketarik egiten zuen ikusteko.

2012ko azaroaren 27an, PSLk NZOren errekerimenduari erantzun zion, GFaren aurretiazko akta aurkeztuz eta honako adierazpen hauek eginez:

a.- WESL sortzea galdategien bezeroek exijitu zuten, Arabako galdategia sortu ondoren sozietate bakar batengatik fakturatu ziezaieten.

b.- WESLk ez du inoiz ez baliabide materialik ez giza baliabiderik izan.

c.- Hau izan da bere jarduera: galdategien piezen salmentan bitartekari-lanak egitea, bere izenean eta galdategien kontura.

d.- WESLren merkaturatze-jarduerak ez du balio erantsirik sortzen.

e.- WESLek hau besterik ez du egiten: galdategien fakturak jaso eta bezeroentzako fakturak egin eta, alderantziz, bezeroei kobratu eta galdategiei ordaindu, horretarako batzuetan banku-deskontura jotzen duelarik. Eginkizun horiek taldeko beste langile batzuek egiten dituzte.

f.- WESLk ez du inolako ordainsaririk jasotzen bere jardueragatik.

Horretan oinarrituta, NZOk ulertu zuen WESLk ez zuela egiten eduki propiorik eta justifikazio ekonomikorik duen benetako jarduerarik.

Hori guztia kontuan hartuta, 2013ko otsailaren 4an erantzun zuen, eta adierazi zuen Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoko 33.6.A.1 artikulua aplikatuz (28/1990 Legearen bidez onetsi zen) ez zuela eskumenik 09-0006 BEZ-taldeari irekitako aurretiazko aktaren

ondoriozko zenbatekoa itzultzeko, irizpide hauen arabera Nafarroan egiten baitira ondasun-emateak:

Ondasun higitari gorpuzdunak ematea, ematen dituenak berak fabrikatu edo eraldatu baditu eta subjektu pasiboaren fabrika edo eraldaketarako zentroak Nafarroako lurraldean baldin badaude.

Subjektu pasibo horrek fabrika edo eraldaketarako zentroak bai Nafarroan bai lurralde komunean dituenen, baldin eta emandako ondasunak fabrikatzeko edo eraldatzeko azken prozesua Nafarroan egin badu.

Hala, NZOk argudiatu zuen ezin dela onartu Nafarroan eragiketarik egiten denik, galdategiek ez daukatelako fabrikazio- edo eraldaketa-zentrorik lurralde horretan.

Erantzun hori NZOk GFari eskumena baliatzeari uzteko egindako errekerimendu gisa egituratu zen, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordean gatazka aurkeztu aurretik.

7.- 2013ko martxoaren 6an, eskumena baliatzeari uzteko eskatu zion GFAk HTNri, 09-0006 BEZ-taldeak WESLren bidez Nafarroan izandako salmentek eragindako tributazio-proporzioaren ondorioz.

8.- 2013ko apirilaren 19an, eginbidean jaso ziren zergapekoaren adierazpen hauek:

a.- Galdategiek erabilera-ahalmenaren eskualdatze juridiko eta ekonomikoa egin diote merkaturatzaileari eta horrek bezeroei.

b.- WESLren sorrerak benetako helburu ekonomikoa du, bezeroei elkarriketarako bide bakarra eskaintzen die eta eraginkortasuna

hobetzen du, eskaera guztiak jaso eta galdategien artean banatzen dituelako eta, beraz, balio erantsia sortzen du.

c.- Bezeroekiko erantzukizuna merkaturatzailearena da, nahiz eta gero galdategiei ematen zaien.

d.- WESL banku-kontuen eta deskontu-lerroen titularra da.

e.- Taldeak aplikazio informatiko bat diseinatu du merkaturatzailearentzat, prozesu guztiak automatizatzen dituen eta langile propiorik behar ez izatea eragiten duena.

9.- 2013ko apirilaren 29an, beste adostasun-akta bakar bat egin zitzaion 09-0006 BEZ-taldeari, 2013001383 zenbakiarekin. Akta hori 2012ko ekainetik abendura arteko hilabetei dagokie eta, bertan, berriz ere HTNri egotzi zitzaion eragiketa-bolumenaren proportzioa. Akta hori ere akta bakar gisa izapidetu zen, eta zergapekoari itzuli egin zitzaion ordainarazteko eskumena duten administrazio guztiei dagokien zenbatekoa. Horrela, NZOrekiko kreditu berri bat sortu zen.

10.- NZOk eskumena baliatzeari uzteko-errekerimenduari ez zionez erantzun, gatazka aurkeztu zen 2013ko maiatzaren 6an, eta 11/2013 espediente-zenbakiarekin izapidetu da. Espediente horretan, GFAk uste du garrantzi gutxikoak direla merkaturatzailearen giza baliabideak, baliabide materialak eta haren kokalekua, bezeroei garraiatutako salgaiak dauden lekua baita lotunea.

11.- Espedientea prozedura arruntaren bidez izapidetu da eta, hortaz, hasierako alegazioak egiteko izapidea eskaini zaio NZOri eta azken alegazioak egitekoa alderdi guztiei. Hilabeteko epea dute.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikulua arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Horren arabera, bidezkoa da GFak irekitako akta bakarretan erregularizatutako eragiketa-bolumenaren proportzioari buruzko ebazpena ematea. Akta horien bidez, tributazio-proportzio bat egozten zaio NZOri.

2.- Galdaketa-piezak metalizatzea

Galdaketa bidez egiten diren produktuak material galdatua edo masa urtua molde batean sartzearen emaitza dira. Lortu nahi den azken piezaren kopia zehatz negatiboa da molde hori. Moldea fabrikatzeko, eredu bat behar da; hau da, piezaren kopia positibo berdin-berdina.

Metalizatzeko-prozesuan, pieza baten gainazala material metaliko edo zeramiko batekin estaltzen da, material hori piezaren gainean jarriz, urtuta edo erdi urtuta. Estaldura metalizatuak erabiltzen dira gastatuta dauden zatiak konpontzeko, gaizki makinatutako osagaiak salbatzeko edo jatorrizko ekipamenduaren gainazalari propietate bereziak emateko. Mekanizatuak beste erabilera batzuk ere baditu: higaduraren kontrako erresistentzia hobetzea, beroaren edo korrosioaren kontrako erresistentzia gehitzea, gainazalei akabera ematea, labaingarritasuna handitzea, eroankortasun termikoa edo elektrikoa hobetzea eta dekorazio-estaldurak sortzea.

3.- Merkaturatze-lana egitea

BEZaren subjektu pasiboa taldea da, eta ez taldea osatzen duten sozietateak (menderatzailea eta mendekoak).

Frogaren balorazio objektiboak ondorio hau ekarriko luke: WESLk ez duela merkaturatze-jarduera egiten, ez baitu horretarako giza baliabiderik eta baliabide materialik eta ez baitu inolako prestaziorik edo komisorik kobratzen jarduera horrengatik.

Badirudi hori bat datorrela zergapekoak 2012an NZOri egindako adierazpenekin, adierazpen horiek sinesgarriagoak baitira GFari 2013ko apirilaren 19an egindakoak baino. Gainera, adierazpen horiek beranduagokoak dira 2009ko maiatzetik 2012ra arteko aldiak erregularizatzen dituen aurretiatzko akta baino eta baita eskumena baliatzeari uzteko errekerimendua baino (horren berrespenean aurkeztu zen gero gatazka), eta bigarren akta bakarra egin baino hamar egun eskas lehenagokoak (2012ko ekainetik abendura arteko aldiak erregularizatzen ditu akta horrek).

Hala ere, NZOren aldez aurreko jarrera onartuta ere, argi dago norbaitek egiten duela merkaturatze-lana eta norbaitek sortzen duela hari datxekion balio erantsia. Ondorioz, galdategiak izango lirateke merkaturatze-lan hori egingo luketenak, eta, beraz, eragiketen kokapena zehazten duen lotunea hartu beharko litzateke kontuan; hau da, Ekonomia Itunaren 28. artikulua.

4.- Eragiketen kokalekua

Arbitraje Batzorde honek 7/2021 Ebazpenean eman zuen bere iritzia Ekonomia Itunean azaltzen diren eragiketen kokapen-arauen interpretazioari buruz, eta iritzi hori 16/2022 Ebazpenean osatu zuen. Beraz, ebazpen horiek errepikatutzat ematen dira hemen, izan beharreko ondorioak izan ditzaten.

Auzitegi Gorenak 2323/2011 Epaian (ROVER Epaia izenarekin da ezagunagoa) adierazi zuen garraioa hasten den lekua eten bat besterik ez dela arau orokorrean eta zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo hasten edo bukatzen diren garraioetan besterik ez dela aplikatzen.

Fabrikazioaren eta merkaturatzearen balio erantsia Euskal Autonomia Erkidegoan egiten da, taldeak bertan baititu jarduera horietan balio erantsia sortzeko erabiltzen diren elementu material eta giza elementu guztiak.

Nolanahi ere, ohartarazi beharra dago eragiketen kokapenari buruzko ondorio berera iritsiko ginatekeela WESLk merkaturatze-lanak egiten dituela onartuta ere.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea ez dela Nafarroan kokatzen 09-0006 BEZ-taldeak fabrikatutako galdaketa-piezen merkaturatze-lana eta, hortaz, Nafarroako Zerga Ogasunari ez dagokiola 2009tik 2012ra arteko ekitaldietako eragiketa-bolumenaren inolako proportziorik.

2.- Erabaki hau Nafarroako Zerga Ogasunari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea; baita PSLri ere, bera baita 09-0006 BEZ-taldeko nagusia.